



**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA**
Etxebizitza Sailburuordetza
Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES**
Viceconsejería de Vivienda
Dirección de Vivienda y Arquitectura

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

URTEKO TXOSTENA 2004. URTEA

URTEKO TXOSTENA 2004. URTEA

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK	2
2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK	3
2.1.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua	3
2.2.- Batzorde Iraunkorra.	9
3.- IRISGARRITASUNAREN EREMUKO ASISTENTZIA ZERBITZU TEKNIKOA ...	21
3.1.- Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua	21
3.2.- Batzorde Iraunkorarentzat eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzat laguntza tekniko.	24
3.3.- 2004. urtean osaturiko edo osatze-prozesuan dauden udaletako Irisgarritasun Planei buruzko txostena.	26
4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PROPOSATURIKO GAIEN LABURPENA	31
4.1.- Txosten-eskaerak eta kontsultak	31
4.2.- Salbuespenak jakinaraztea.	35
5.- UDALETAKO IRISGARRITASUN PLANETARAKO ETA OBRETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIA.....	45

1.-AURREKARIAK

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea honako helburu honekin onartu zen: hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, zailtasunak komunikazioan edo muga psikiko zein sensoriala, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.

20/1997 Legearen V. Idazpuruan IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA aipatzen da; lege horren 24. artikuluan honako hau ezartzen da: administrazioek, ezinduen ordezkari diren erakundeek eta elkarteek, erabiltzaileek, sustatzaileek eta profesionalen elkargoek osaturiko aholku-organo eta organo parte-hartzailea dela, 25. artikuluan xedaturiko osaerarekin. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilu horren eginkizunak honako hauek dira, 26. artikuluari jarraiki:

- a) Urtean behin txosten bat egitea, lege horretan oharmandakoa zein mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.
- b) Irisgarritasunaren arloan aginpidedun diren organoei laguntza eman eta jarduteko irizpideak proposatzea, lege horretan xedatutakoaren arabera.
- c) Horren antolamendu eta funtzionamendurako araudia onestea.
- d) Bere esku uzten diren beste egiteko batzuk.

2.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN BILERAK.

2004. urtean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren eta Batzorde Iraunkorraren bilera hauek egin dira:

- 2004ko ekainaren 28a - Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren bilera.
- 2004ko abenduaren 14a - Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren bilera.

Jarraian, bilera horietako akten eta landutako gaien laburpena azalduko dugu.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren 2004/06/28ko bilera.

Bertaratuak:

Javier Madrazo Lavín jauna
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua

Sonia Samaniego Soto andrea
Etxebizitza eta Arkitektura zuzendaria
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Ángel Albinarrate Eguía jauna
Baliabide Orokorren eta Herri Administrazioaren Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritzaren Ogasun Saila

Aintzane Izagirre andrea
Euskal Jaurlaritzaren Garraio Saila

Javier Botella Astorqui jauna
Arabako Foru Aldundia

Noemí Ostolaza
Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua

Josu Benaito Villagarcía jauna
EUDEL – Donostiako Udala

Pedro Manuel Mendizabal Basabe jauna
EUDEL – Mundakako Udala

Agustín de Lorenzo Urien jauna
Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala

Elena Ávalos Martínez de Luco andrea
EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Juan Carlos Sola Guzmán jauna
EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Raquel Barroso Ordoñez andrea
EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Juan José Abascal Martín jauna
Euskal Gorrak – Gorren Elkartean Euskal Federazioa

Enrique González jauna
UNECA

Karmele Ruiz Antolín andrea
EKE – Euskadiko Kontsumitzaileen Elkartea

Lehen gaia: Aurreko akta irakurtzea, onartzeko.

EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkariak hitz egin du, eta honako hau eskatu du: “kolektiboen eskakizun klasikoak...” esaldian “klasikoak” hitza ken dadila Aktatik. Ados daudenez, bertaratu guztiek aho batez onartu dute Akta.

Bigarren gaia: ISEKen urteko txostena. Txostenaren ildo nagusiak azaldu ditu Etxebizitza zuzendariak; aurreko urteko Kontseiluaren jarduerak jaso dira Txostenean.

Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak aipatu duenez, irisgarritasunaren eremuko arauak betetzearen inguruko salbuespenen berri eman behar diote Kontseiluari Udalek, eta jakinarazpen hori nola egin behar den azaltzeko Udalek jasotako

gutunean “irekitzeko baimena” aipatzen da, baina baimenak ez dakar inolako obrarik; beraz, ezin zaio salbuespenik eman. Kontzeptua argitu behar dela erabaki da.

EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkariaren esanetan, goian aipaturiko gutun horrekin batera igorritako fitxan honako hauek ere sartu behar dira: ateen neurria, komunen ezaugarriak eta beiradun ateetako seinaleak. Hainbat salbuespenetan, Udalek erabilgarritasunaren aukera ez dutela aurreikusi ere egin aipatu du. Azaldu duenez, gune publikoetan eskailera mekanikoak jartzeari diru-laguntzak ematen dizkio Administrazioak, baina eskailera horiek ez dute bermatzen igogailuek adinako irisgarritasuna; hortaz, goitik beherako irisgarritasuna (igogailuak) lehenetsi beharko litzateke beti, igogailua eta eskailerak bateragarri izatea lortuta.

Etxebizitza zuzendariaren eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko ordezkariaren ustez, eskailera mekanikoek betetzen dituzte osasun-arazoak eta noraezean ibiltzeko arazoak dituztenen beharrak, eta, horretaz gain, eta Udaletatik esaten dietenaren arabera, igogailuekin arazoak izaten dira segurtasunaren eta mantentze-lanen eremuan.

Honako hau erabaki da: diru-laguntzen baremoak zehazteko garaian, Zuzendaritzak igogailua lehenestea, eta hein txikiagoan, eskailera mekanikoak.

Txostenari dagokionez, EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkariak esan du 51. orrialdean huts-egitea dagoela, guztizko batura ez baita zuzena. 02.03 kontsultatik (21. or.) “ezin dute ezinduak izan” esaldia kentzeko eskatu du, eta 23.03 kontsultatik (26. or.) “ate homologatuen” ingurukoa.

19.03 kontsultari (25. or.) dagokionez, Garraio Saileko ordezkariak honako hau jakinarazi du: Europako garraioari buruzko araudia eta irisgarritasunari buruzko gure legeak ez datozela bat; hori dela eta, arazo horren inguruko azterketa egitea proposatu du. Azterketari ekitea erabaki da.

Bide publikoa inbaditzeko debekuak eragindako arazo larria azaldu du EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkariak, izan ere, kasu askotan, inbasio txiki batekin irisgarritasuna lortzen baita.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko ordezkariaren ustez, EUDELen esku-hartzea oso garrantzitsua da arazo hori konpontzeko.

Beste gai interesgarririk ez dagoenez, 2003ko Txostena aho batez onartu da.

Hirugarren gaia: ONCE erakundeak proposaturiko 68/2000 Dekretuaren IV. Eranskineko 2.4.1.3. puntuaren (errotulazioari buruzkoa) aldaketa onartzea.

Proposaturiko Aldaketa egitea onartu da aho batez, eta Batzorde Iraunkorraren azkeneko bileran onartu denez, testua horrela geratu da: “Testurik izanez gero, inprenta-letrak izango ditu, karaktereen artean 0,5 cm-ko tarteak utzita. Adierazle esekiak eta/edo irtenak direnean, gutxienez 4 cm-ko karaktereak erabiliko dira”.

Laugarren gaia: Babes Ofizialeko Etxebizitzak diseinatzeko ordenantzak onartzen dituen 2002ko abenduaren 30eko agindua aldatzeko proposamena onartzea, mugikortasun murriztua duten lagunentzako diren bi logelako etxebizitzaren gehieneko azalera erabilgarria handitzeko.

Proposaturiko aldaketarekin, azalera erabilgarria 75 m²-tik 90 m²-ra handituko litzateke kasu horietan. Aho batez onartu da arau-aldaketa.

EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen ordezkariak familia ugarien kasua jarri du mahai gainean, eta Etxebizitza zuzendariak aipatu duenez, kasu horretan, Dekretua aldatu beharko litzateke. Dena den, eskaerari eta eskatzaileei erreparatu beharko zaie, eta aurrera begira kontuan izango da.

Bosgarren gaia: MLOn Ezinduak barne hartzeko Dokumentua aurkeztea, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko ordezkari batek. Sail horretako ordezkariak ez dagoenez bileran, bilerara joan ezin izan dutelako barkamena eskatu du Sailak, eta bertaratuen esanetara jarri dute beren burua, Txostenaren inguruan esatekorik izanez gero.

Hori horrela izanik, UNECAren ordezkariak dokumentu bat aurkeztu du, horren inguruko ekarpenekin: kontratazio administratiboan, langile ezinduen ehunekoren bat izateko lege-eskakizuna betetzen duten enpresei puntuazio handiagoa ematea kritikatu dute, bai baitaude (tamainaren arabera) eskakizun hori bete behar ez duten hainbat enpresa —enpresa txikiak—; halaber, 25 langiletik gorako enpresetan —lehen 50etik gorakoak ziren— % 2tik % 4ra handitu da langile ezinduen kopurua, eta bere ustez, horrek guztiak enpresa horien iraupena arriskuan jartzen du. Horretaz gain, datuei erreparatuta, Autonomia Erkidego osoan lana eskatzen duten ezinduak 1.600 baino gutxiago direnez, eskakizun hori betetzea ezinezkoa izango litzateke.

Etxebizitza zuzendariari eman dizkiote parte-hartzaile horren ondorioak, eta zuzendariak bere Sailera helaraziko ditu, betiere erakunde horren ondorio gisa, ez Kontseiluaren ondorio gisa.

Seigarren gaia: Beste zenbait

1) Familia bakarreko etxebizitza kontzeptuaren definizioari buruzko informazioa (irisgarritasuna sustatzeko 20/95 Legearen 4. art.).

Irisgarritasunaren eremuko Asistentzia Zerbitzu Teknikoko abokatuak azaldu du zer dioen Txostenak horren inguruan; parte-hartzaileei igorritako gai-zerrendari erantsi zitzaion Txostena. Txosten horretan, Sailaren araudian bertan —babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari, eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2000 Dekretuaren 2.3. artikuluan— jasota dagoen definizioarekin loturik dago familia bakarreko etxebizitzaren kontzeptua.

Azalpenaren ostean, eztabaida interesgarria gertatu da. Arabako Foru Aldundiko ordezkariaren ustez, “elkarri atxikitako etxea / irisgarritasuna” kontzeptuak ez dira bateragarriak, “elkarri atxikitako etxeetan” eskailerak izaten baitira beti; aldiz, UNECAren ordezkariak aipatu du oso garestia izango litzatekeela elkarri atxikitako etxeetan irisgarritasuna eskatzea, eta gainera, horretarako Legea ere aldatu beharko litzatekeela. Irizpide bateratua lortzea zaila denez, honako hau proposatu du Arabako Foru Aldundiko ordezkariak: agian, “elkarri atxikitako etxeen” sustapen publikoetan, beheko solairuko “atxikitakoen” zenbateko bat eska daitekeela.

Gehiengoaren adostasuna eta behin betikoa lortzea oso zaila dela ikusita, kontzeptua bera eta horren eragin juridikoa aztertzea erabaki da.

2) Lehendik badiren eraikinetan lokal hutsek edo jarduera-aldaketa duten lokalek dakarten problematikari buruzko informazioa.

Lehenik, Irisgarritasunaren eremuko Asistentzia Zerbitzu Teknikoko abokatuak hitz egin du, eta horren inguruan landutako Txostena azaldu du (bilerarako igorritako dokumentazioarekin batera bidali zen Txostena).

Etxebizitza zuzendariak azaldu duenez, helburua ez da lokal horiek betiko itxita izatea. Lege-esparrua (V. eranskina) ezagututa, irisgarritasun-maila handiena lortzea da kontua, eta hori ezinezkoa baldin bada, erabilgarritasunaren alde egitea, eta, besterik ezean, salbuespenaren alde, betiere erabilera publiko jakinetan (osasungintza, erregistroak, etab.) erabateko erabilgarritasuna eska dadin aholkatuta —araudiak ez du haratago joateko aukerarik ematen, udaletako eskumena baita—.

Gure eraikin-ondarea —gure hirietako erdiguneak— den bezalakoa dela esan dute bertaratuek, eta lokal asko eta asko direla arazo hori dutenak. Azken batean, egoera horri udalek egin behar izaten diotela aurre nabarmendu da.

Hori dela eta, sortu den arazoa EUDELi helaraztea erabaki da, erabilera publikoko kasu horiek zehatz ditzan.

3) ISEKek bere garaian emandako aholkuen betetze-mailaren eta aplikazio-mailaren inguruan, Eusko Legebiltzarrak emandako erantzunari buruzko informazioa.

Legebiltzarrak emandako erantzuna aldeztatik ezagututa, EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen ordezkariak aipatu du zenbait erantzun ez direla onargarriak —bulegoetako ateak—, ezta barkagarriak ere —sartzeko kabinako atea ez da aldatu, eta komunak ere egokitu gabe daude—. Legeak lantzen dituen organoa izaki, Legebiltzarrak eredu izan behar luke.

4) Ordura arte osaturiko edo osatze-prozesuan dauden Udaletako Irisgarritasun Planei buruzko informazioa.

Gai-zerrendako puntu horri dagokion Txosten atxikiari buruzko azalpenak eman ditu Etxebizitza zuzendariak. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko ordezkariak honako hau iradoki du: diru-laguntzak emateari eustea, hots, planak betetzen dituzten edota planetan aurreikusitako obrak gauzatzen dituzten udalei sariak ematea. Ideia jaso da.

Zazpigarren gaia: Galde-eskeak

1. EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkariak honako hau esan du: bilerak egin aurretik, Kontseiluko kide diren gainerako administrazioek irisgarritasunaren eremuan zein ekintza egiten dituzten jakin nahiko lukeela.

2. Euskal Gorrak – Gorren Elkarteen Euskal Federazioko ordezkariaren hitzei jarraiki, Kontseiluaren baitan lan-talde bat osatu behar da, irisgarritasunaren gaia alderdi guztietatik —eraikinak, garraioa, komunikazioa, etab.— landuko duena, ezintasun bakoitzari dagokionez. Aho batez onartu da lan-talde hori osatzea.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004/12/14ko bilera.

Bertaratuak:

Sonia Samaniego Soto andrea
Etxebizitza eta Arkitektura zuzendaria
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Agustín de Lorenzo Urien jauna
Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Batzorde
Iraunkorraren idazkaria

Aintzane Izagirre andrea
Garraio eta Herri Lan Saila
Iñaki Ibarondo jauna
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.

Alberto Aguinaco jauna
Ogasun eta Herri Administrazio Saila

Lore Bilbao andrea
Kultura Saileko Zerbitzu zuzendaria

Javier Botella Astorqui jauna
Arabako Foru Aldundia

Jose Luis Madrazo jauna
Gizarte Politikarako zuzendari nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia
Iñigo Pombo Ortíz de Artiñano jauna
Gizarteratze zuzendaria. Bizkaiko Foru Aldundia

Joaquín Vela Arechederra jauna

Osakidetza

Pedro M. Mendizabal Basabe jauna
EUDEL

Josu Benaito jauna
EUDEL

Elena Ávalos andrea
EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Raquel Barroso Ordoñez andrea
EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Karmele I. Ruiz andrea
Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioa

Celina Menaza Ecenarro andrea
Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna – UCE/EKB

Enrique Gonzalez Sal jauna
UNECA – Arabako Eraikuntzako Enpresaburuen Batasuna

Juanjo Abascal Martín jauna
Gorren Elkarteen Euskal Federazioa – Euskal Gorrak

Laura Correa Reglero andrea
Gorren Elkarteen Euskal Federazioa – Euskal Gorrak

Bertaratu ezina azaldu dute:

Mercedes Rodriguez Larrauri andrea
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

Mikel Cabello Pérez jauna
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Esther Larrañaga Agirre andrea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Juan Carlos Sola Guzmán jauna
EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea

Jesus M^a Aceves Martín jauna
Bide, Ubide eta Portuetako Elkargoa

2004ko abenduaren 14an, Etxebizitza eta Arkitektura Saileko zuzendari andrea buru izanik, bilerari hasiera eman dio, bertaratu direnei eskerrak emanek eta honako hau jakinaraziz: Sagrario Iturrate abokatuak Irisgarritasunaren eremuko Aholkularitza Zerbitzuan hasiko dela. Hori horrela izanik, Etxebizitza zuzendariaren esanari jarraiki, Aholkularitza Zerbitzuan arkitekto bat eta bi abokatu izango dira, Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren Idazkaritza Teknikoak koordinatuta eta gainbegiratuta. Bertaratuak aurkeztu ostean, deialdian proposaturiko Gai-zerrendari heldu zaio.

Lehen gaia: Aurreko Batzorde Iraunkorraren (2003/11/06) akta irakurtzea eta onartzea.

Aurreko Batzorde Iraunkorraren Aktan jasotako erabakiak bete direla azaldu du Etxebizitza zuzendariak.

Aurreko Iraunkorraren Gai-zerrendako lehenengo puntuan, Arabako Foru Aldundiko ordezkariaren esku-hartzeari buruz zehaztapen hau egin du ordezkariak berak: hustuketa-bideetako irekitze-elementuei dagokienez, suteen inguruko araudian honako hau xedatzen da: erraz irekitzeko modukoak izan behar dute, eta testuinguru horretan, praktikan, izualdien kontrako barrak jartzeko joera dago, baina araudiak ez du zehazten irekitze-elementu mota hori jarri behar denik.

Zehaztapena egin ostean, dokumentuan eranstea erabaki da. Jarraian, aurreko Batzorde Iraunkorraren Akta onartu da, aho batez.

ERABAKIA: Arabako Foru Aldundiko ordezkariak egindako zehaztapena barne hartzea aurreko Batzorde Iraunkorraren (2003/11/06) Aktan eta Akta hori onartzea.

Bigarren gaia: 2004. urtean osaturiko edo osatze-prozesuan dauden udaletako Irisgarritasun Planei buruzko informazioa.

Deialdiarekin batera jasotako dokumentazioan erantsitako Txostenaren ildo nagusiak azaldu ditu Etxebizitza zuzendariak. Gaur egun, 107 Udalek badute Irisgarritasun Plana, eta horietatik 31 2004. urtean osatu ziren. Datu horien arabera, EAEn, biztanleriaren % 79,06 barne hartuta dago dagoeneko eginda dauden Planetan.

EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkariaren eta Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioko ordezkariaren ustez, komeni da udaletako Irisgarritasun Planen gauzatzearen jarraipen-ekintzak egitea, eta ekintza horiek justifikatzeko arrazoitzat jotzen dituzte Udalei ematen zaizkien diru-laguntzak.

Horren ondoren, Irisgarritasun Planetarako emandako diru-laguntzen gaiari heldu dio Etxebizitza zuzendariak, baina esku-hartze horren ondorioak Akta honen zortzigarren puntuan sartuko ditugu, deialdi honetako Gai-zerrendan zortzigarren gaia baitzen.

Hirugarren gaia: 2004. urtean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan jasotako Salbuespenei buruzko informazioa.

2004. urtean emandako salbuespen kopuruari eta salbuespen horiek emateko arrazoiei buruz Txostenean bildutako ondorioak azaldu ditu labur-labur Etxebizitza zuzendariak. Betebehar hori betetzeko dinamikan hainbat udal berri sartu direla nabarmendu da, eta betebehar hori bazegoela gogorarazteko ISEKek udaletara bidalitako komunikazioak horretan izan duen eragina modu positiboan baloratu da. Hala ere, salbuespenak aplikatzeko zorroztasuna zalantzan jarri da, eta salbuespenak emateko garaian, motibazioetan zehaztasunik ez dagoela baloratu da.

Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioko ordezkariak egindako proposamenaren arabera, ikuskapenak ausaz egiteko aukera aztertu beharko litzateke, salbuespen horiek egiaztatzearen. ISEKek lege mugatua du salbuespenen inguruko eskumena, eta erakunde horrek ez du esku-hartzeko inolako aukerarik Udalek salbuespenak ematen edo ukatzen dituztenean.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren (ISEK) Batzorde Iraunkorraren idazkariak zehaztu duenez, emandako salbuespenak egiaztatzearen, ikuskapenak ausaz eginez gero, alde batetik, legeak ezarritakoari jarraiki, Udalek beraiek emandako salbuespenen berri ISEKera igortzen duten hainbat Udal zigortu beharko lirateke; eta bestetik, ISEKi jakinarazteko betebeharra bete ere egiten ez duten udalek nahi dutena egiten jarraitu ahal izango dute. Hala eta guztiz ere, ISEKen Batzorde Iraunkorraren idazkariaren esanetan, komeni da Udalei

jakinaraztea emandako salbuespenaren komunikazioarekin batera, lokalaren planoaren ere igorri behar dutela, lokal horretan aurreikusitako obrak adierazita.

Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioaren ordezkariaren ustez, itxuraz, udaletako teknikariek ez dakite zeintzuk diren irizpide egokiak salbuespenak baloratzeko garaian, eta Irisgarritasunari buruzko Jardunaldien inguruan egindako galderari ISEKen Batzorde Iraunkorraren idazkariak erantzun dio, 2005. urterako aurreikusi direla esanda.

Gai-zerrendako bederatzigarren puntuan proposatuko diren lan-taldeetan eztabaidatzeko gaitako bat “salbuespenak ematea” izan daitekeela esan du Etxebizitza zuzendariak.

Laugarren gaia: 2004. urtean, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan eta Asistentzia Zerbitzuan jasotako Kontsultei buruzko informazioa.

Bertaratu guztiek eskura duten txostenean, gehien planteatzen diren gaien inguruko, eta beraz, zalantza gehien eragiten duten gaien inguruko ondorioak azaldu dituzte labur-labur Etxebizitza zuzendariak eta Irisgarritasunaren eremuko Aholkularitza Zerbitzuko abokatuak.

Jasotako hainbat kontsultaren ildo nagusiak azaldu ditu ISEKen Batzorde Iraunkorraren idazkariak, eta honako hau proposatu du: zenbait gai —hala nola zebra-bideen zoladurak eragindako arazoak, edo plataformak jartzeko eta ezinduei esleituriko etxebizitzak egokitzeko jarraitu beharreko irizpideak— Gai-zerrendako azkeneko puntuan aztertzea.

Bosgarren gaia: Andoingo Udalak ISEKi egindako kontsultari buruzko informazioa; kontsulta honako honen ingurukoa zen: III. eranskineko 5.3.5. artikulua nola interpretatu behar den, hirigunean eskailera mekanikoak, tapiz pirikariak eta igogailuak jartzeari buruzko II. eranskineko 3.9. artikuluan III. eranskinerako bidaltze-oharrari dagokionez.

Bi arau horien interpretazio juridikoari eta 68/2000 Dekretuan arau bakoitzari ezarritako aplikazio-eremuari buruzko ondorioak azaldu ditu Irisgarritasunaren eremuko Aholkularitza Zerbitzuko abokatuak.

EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkariaren eta Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioko ordezkariaren ustez, proposaturiko erantzun-txostenari paragrafo bat gehitu beharko litzaioke honako hau argitzeko: proposaturiko irtenbidea erabilgarritzat bai, baina irisgarritzat ezin dela hartu, jende guztiarentzat ez baita irisgarri; irisgarri izateko, tapiz pirikariak jarri beharrean, igogailuak jarri beharko lirateke, nahiz eta, goian aipatu diren arau horiek hitzez hitz hartuz gero, hirigunean bi sistema horiek jartzea ez den nahitaezkoa.

Era berean, tapiz pirikariak jartzea erabakitzen bada, eta irtenbide honetan dagoeneko azaldu dugun balorazioari jarraiki, tapizen sarreretan eta irteeretan gelditzeko mekanismoak ipintzeko eskaera gehitzea egoki ikusten da, mugikortasuna murriztua duten lagunek sartzeko eta ateratzeko aukera izan dezaten; izan ere, lagun horiek ezin izango baitute sartu eta atera tapizak mugitzen ari badira.

EUDELeko ordezkariaren esanetan, komeni da Udalek igogailuak jartzeko planteamendua egitea, eskailera mekanikoak edo tapiz pirikariak jarri beharrean, aukera hori egiteak alde handirik eragiten ez duen kasuetan; hori horrela eginez gero, irisgarriaren eta erabilgarriaren —baina, aldi berean, biztanle jakin batzuentzat irisgarria ez denaren— arteko muga gaindituko litzateke.

ISEKen Batzorde Iraunkorraren idazkariak uste du bi alderdi nahasten ari direla eztabaida horretan. Alde batetik, Andoaingo Udalak ISEKi egindako kontsulta dago, proposaturiko erantzun-txostenaren helburu izan dena (hirigunean eskailera mekanikoa edo tapiz pirikaria jartzen direnean, eraikinen kasuan bezalaxe, zein kasutan jarri behar da igogailua ere, indarreko legediari jarraiki?); eta bestetik, igogailuak, tapiz pirikariak edo eskailera mekanikoak zenbateko irisgarritasun-maila ematen duen kontua dago. Bi gai horiek elkarrekin lotura badute, baina ez dira gauza berdina.

ERABAKIA: Bertaratuei aurkeztu zaien Andoaingo Udalarentzako erantzunaren zirriborroari honako eskaera hau gehitzea: tapiz pirikari bakoitzaren sarreretan eta irteeretan gelditzeko mekanismo bat ezartzea, eta tapizaren zabalera eta aurreratze-abiadura egokiak direla egiaztatzea, erabilgarria izan dadin. Udalak erabakitako irtenbidearen inguruko balorazioa eranstea dokumentuari, tapiz pirikariak jarrita hirigunea ez dela irisgarri bihurtzen zehaztuta, eta igogailuak jartzea lehenetsi behar dela adierazita.

Seigarren gaia: 68/2000 Dekretuaren (komunikazioan irisgarritasuna) IV. eranskinaren errotulazioari buruzko 2.4.1.3. artikulua aldatzea.

Etxebizitza zuzendariak bertaratuei jakinarazi dienez, aldaketa legeztatzeko dago oraindik, eta horren ostean, EHAA n argitaratu behar da.

Zazpigarren gaia: Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legean barne hartutako zigor-erregimena aplikatzeko irizpideak baloratzea.

Bertaratuei banaturiko Txostenaren edukia azaldu du Irisgarritasunaren eremuko Aholkularitza Zerbitzuko abokatuak; Txosten horretan jasotzen denez, irisgarritasunaren eremuan izandako lorpenak are garrantzitsuagoak dira, ez baitira 20/1997 Legean aurreikusitako zigor-erregimena betearaztearen ondorio izan. Abokatuaren esanetan, Lege horretako zigor-erregimena portaera eta jarduera tematien kasuetarako gorde behar da, irisgarritasunari buruzko araudiaren izaera tuitiboari eutsiz.

EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkariak eta Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioko ordezkaria ez datoz bat Txostenaren edukiarekin eta jarrerarekin; haien ustez, Txostenean gomendatzen den ildo gaur egun ohiko praktika da.

Legeak aurreikusitako zigor-erregimenean aurreikusitakoa zehatz-mehatz jakin nahi dutela esan dute, Txostenaren helburua horixe izango zela uste baitzuten.

Zigor-prozeduraren beraren inguruan txosten bat egin daitekeela proposatu dute Etxebizitza zuzendariak eta ISEKen Batzorde Iraunkorraren idazkariak, espero zen bezala.

Arabako Foru Aldundiko ordezkaria bat dator gaia lantzeko Txostenean jarraitu den ikuspegiarekin, eta hain zuzen ere Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legean aurreikusitako zigor-erregimenaren ezaugarriekin justifikatu du bere balorazioa. Arabako Foru Aldundiko ordezkariaren ustez, gehiegizkoa da aurreikusitako zigor-erregimen hori, bai aurreikusitako zigorren zenbatekoei dagokienez, baita Legeak erantzuleztat hartzen dituen lagunei dagokienez ere; hori dela eta, zigor-erregimenari ez-aplikagarri iritzi dio, egun indarrean dauden terminoetan gehiegizkoa delako.

Halaber, etengabe legedia aldatzearen ondorioz sorturiko segurtasun juridiko ezak eragozpenak eragin ditzake indarreko araudia aplikatzeko garaian, Arabako Foru Aldundiko ordezkariak esan duenez. Arauek iraun egin behar dute, aplikatu behar dituztenek barnera ditzaten eta horrela, betearaztean inertzia sortze aldera.

Legean aurreikusitako zigor-erregimena lan-batzordeetako foroan barne hartzea proposatu du Etxebizitza zuzendariak.

ERABAKIA: 20/1997 Legeak berak aurreikusitako zigor-prozedurari buruzko Txostena lantzea, prozedura aplikatzearen edo ez aplikatzearen inguruko irizpideak baloratu gabe, Batzorde Iraunkor honetan aurkeztu den Txostenean landu baita alderdi hori.

Zortzigarren gaia: Irisgarritasun Planak lantzeko, edo Irisgarritasuna bermatzeko Obrak Gauatzeko Diru-laguntzen Deialdiari buruzko informazioa.

Gai-zerrendako puntu hori bigarren gaiarekin batera landu da, hau da, 2004. urtean osaturiko edo osatze-prozesuan dauden udaletako Irisgarritasun Planei buruzko informazioaren gaiarekin batera. Dena den, aurreikusitako Gai-zerrendan bertan ezarritako ordenari jarraitzearen, horren inguruko ondorioak azalduko ditugu segidan.

Etxebizitza zuzendariak zenbatekoak eman ditu aditzera, hain zuzen ere, irisgarritasuna diruz laguntzera bideraturiko zenbatekoak: 12.000.000 euro 2001-2004 bitartean; diru-laguntzak jaso dituzten udalerrien kopurua ere jakinarazi du, 90 izanik. Datu horiek guztiak aintzat hartuta, euskal biztanleria guztiaren % 68,26 barne hartzen da.

Era berean, Etxebizitza zuzendariaren esanetan, hasiera batean, irisgarritasuna sustatzeko laguntzak honako hauetarako soilik aurreikusten ziren: Irisgarritasun Planak lantzeko, eta Udalek obrak gauzatu eta hiri-ekipamendua eros zezaten; baina 2003-2004. urteko deialdian, irabazi-asmorik gabeko erakundeek ere aukera izan zuten laguntza horiek jasotzeko, betiere irisgarritasuna bermatzeko obrak eginez gero.

2003-2004 ekitaldian eskaera ugari jaso zituztenez (133 udal eta 16 erakunde), aurreikusitako aurrekontuak gainezka egin zuela azaldu du Etxebizitza zuzendariak, aurreko biurteko aldian (2002-2003) ez bezala; aurreko ekitaldi horretan 33 udalek soilik aurkeztu zuten eskaera eta aurrekontua ez zen agortu. Hori guztia ikusita, 2004-2005 ekitaldirako aurreikusitako aurrekontuan ez dituzte eskaera berriak hartuko, aurreko ekitaldiko eskaerak osatzeko izango baita. Hala ere, datorren 2005-2006 ekitaldian irisgarritasunaren eremuko Planetarako eta obretarako diru-laguntzen deialdi irekia egingo dela aurreikusten da.

ISEKen Batzorde Iraunkorraren idazkariak uste du komenigarria izan daitekeela, diru-laguntzak emateko garaian, honako hau baloratzea: laguntza-eskaeraren xede den obrak aldez aurretik osaturiko Planetan barne hartuta egotea, eta Plan horietako aurreikuspenen arabera betetzea Planen gauzatze-estrategiak.

Emakida bakoitzak banaketa orokorrean duen eragina eta bakoitzean diruz lagun daitezkeen partidak baloratzeak arazoak eragiten dituela aipatu du ISEKen Batzorde Iraunkorraren idazkariak.

Diru-laguntzak modu orekatuagoan baloratzeko, faktore zuzentzailea ezarri beharko litzatekeela esan du. Udal handienek diru zenbateko handiak inbertitzen dituzte irisgarritasunean, eta gauzatze-aurrekontuak ere handiagoak dituzte; koefiziente zuzentzailerik ezarri ezean, eta guztientzako ehuneko finko eta berdina aplikatzen ez bada, partida handiak dituzten Udal horiek diru-laguntza handiagoak jasotzeko aukera izango lukete baliabide gutxiagoko beste Udalen kaltetan, izan ere, irisgarritasuna sustatzera bideraturiko zenbatekoen bolumena mugatua baita.

EUDELeko ordezkariak zehaztu duenez, udalerrri handiei diru-laguntzak emanda onuradun kopurua ere handiagoa da, baina onartu du zaila dela premiak eta dauden baliabideak uztartzen dituzten mekanismoak aurkitzea.

Bederatzigarren gaia: 2005eko Ekintza Planeko edukien definizioari buruzko eztabaida. Iradokizun-ontzia.

Etxebizitza zuzendariak interesgarri iritzi dio batzordeak osatzeari, irisgarritasunaren arloan kezka handiena eragiten duten gaiak aztertzeko.

Irisgarritasunaren eremuko Aholkularitza Zerbitzuko abokatuak hitz egin du; batzordeen funtzionamendu-gidoia izan daitekeena aurkeztu du, eta bere ustez, komeni da tartean sartutako kolektibo bakoitzean lan-talde bat osatzea, guztien artean lan-foro bat osatzeko eta hortik abiatuta, honako hauek atzeman eta jaso ahal izateko: egiazko premiak, planteatu beharreko irtenbideak, tartean sarturiko eremuak, eta “Jokaera Onen Eskuliburua” osatzeko gauzatu beharreko jarduerak. Irisgarritasunari buruzko indarreko araudia behar bezala aplikatzeko lagungarri izango da eskuliburu hori eta, Legearen izpirituari eta egiazko premiei jarraiki, portaera-dinamika jakina eragingo du, izatearen bidetik.

Ilido berari eutsita, entzumen-minusbaliotasuna dutenen kolektiboak lan-batzorde bat osatu duela jakinarazi da; sei ordezkari osatzen dute batzorde hori, eta 2004ko abenduan egingo dute aurreneko bilera, aurreikusi dutenez. Euskal Gorra –

Gorren Elkarteen Euskal Federazioko ordezkariak azaldu ditu batzorde horretarako aurreikusi dituzten lan-ildoak, eta bileretatik ateratako ondorioekin, Jarduera Gida bat osatzeko asmoa dute, irizpideak bat egitearren eta jarduera-ildo egokiak ezartzearren.

Honako hau ere aipatu da: ondorioak eta alternatibak udalei, eraikitzaileei, sustatzaileek, profesionalen elkargoei... helarazteko lan-ildoak abiaraztea egokia izan daiteke, eta hartara, guztion artean, indarreko legedia aplikatzeko ildo egokiak ezartzeko gai izango gara.

Euren lan-batzordeak osatzeko eskatu zaie tartean sarturiko kolektiboek, baita batzorde horien osakeraren berri ISEKi emateko ere.

Lan-batzorde horietan eztabaidatzeko honako gai hauek proposatu dira: Udalek salbuespenak emateko garaian aintzat hartu beharreko irizpideak, eta Irisgarritasun Planen betetzeari jarraipena egitea; baina gai gehiago lantzeko proposamenak ere egin daitezke.

Etxebizitza zuzendariak "ezagutarazteko" egin daitezkeen alderdien berri eman du: Irisgarritasunari buruzko Jardunaldiak, web-orri bat garatzea... Ezagutarazteko jarduerari dagokienez, bertaratuei iradokizunak egiteko gonbitea egin zaie.

Hamargarren gaia: Galde-eskeak

EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzaileko ordezkariak honako gai hau aurkeztu du: zebra-bideen zoladura dela-eta, mugikortasun-arazoak dituztenei eragin zaizkien arazoak. Gaur egun adapoen artean dagoen aldea aldatu beharko litzatekeela esan du, honako hauek planteatuta: alde batetik, bestelako zoladura motak aurreikusi behar direla, eta bestetik, sareten kasuan, aurreikusitako neurrikoak jarri behar direla.

Arabako Foru Aldundiko ordezkariaren gomendioari jarraiki, ez da komeni xehetasunetan denbora galtzea, hala nola zoladura mota hautatzen; bere ustez, hobeto da honako hau soilik zehaztea: hautaturiko zoladura ez izatea labaingarria eta bandak ipintzeko egokia izatea. Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Zirriborroan, "erabilera-segurtasunari" buruzko dokumentuan, lehenengo aldiz, "ez labaingarri" terminoa definitu dela aipatu du.

UNECA – Arabako Eraikuntzako Enpresaburuen Batasuneko ordezkariak zehaztu du egin daitekeen edozein aldaketak ez duela eragin beharrik dagoeneko sendotuta dauden egoeratan, eta aldaketaz geroztik idazten diren hirigintza-proiektuetan soilik aplikatuko dela.

Proposaturiko gaiak aztertzea ERABAKI DA.

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean hainbat arazo atzeman dituzte kasu askotan egiten ari diren aukerarekin, igogailua jarri beharrean, plataforma jasotzaileak jartzen dituzten kasuetan, alegia; horixe adierazi du Sail horretako ordezkariak. Azaldu duenez, Makinen Arteztarauak arautzen ditu plataformak, eta araudi hori igogailuak arautzen dituen baina zaharragoa da, eta ez hain zorrotza.

Kasu baterako eta besterako aurreikusiriko segurtasun-mekanismoak oso bestelakoak dira, hain zuzen ere, erabilerek ere bestelakoak izan beharko luketelako; hori dela eta, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko ordezkariak jakinarazi du Sail horrek ez duela eskumenik igogailuen tokian plataformak jartzeko baimena emateko, bertikaltasunean. Igogailuen eremuan gertatzen ari diren berrikuntzen berri eman du: gaur egun, oso zulo txikiarekin (10 cm.) jar daitezke igogailuak.

Erabilgarritasunak segurua izan behar duela adierazi du Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko ordezkariak, eta Industria Saila lan-ildo horri atxikita ari da lanean, nahiz eta oraindik ere aztertzen ari diren kontu hori. Europako araudian, Makinen eta Igogailuen Arteztarauak aldatzeko lanetan ari dira, eta Plataforma Bertikalei buruzko Araua informazio juridikoko fasean dago. Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko ordezkariaren ustez, araua onartu ostean, araua aplikatzeko adina irizpide izango da, baina horrelakorik gertatu arte, ingurune publikoetarako lehen azaldu dugun irizpidea aplikatu beharko da.

ERABAKIA: Igogailuen ordeztaratuak jartzearen inguruan, ISEKera bideratzen diren kontsultak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailekin aztertuko dira.

Minusbaliotasunen bat dutenei esleituriko etxebizitza babesuak egokitzeko garaian irizpide egokiak aplikatzean sortu diren arazoak azaldu ditu Etxebizitza zuzendariak.

ISEKen Batzorde Iraunkorraren idazkariak ondorioak azaldu ditu, eta honako hau ERABAKI DA: bertaratuei gaiaren berri ematea, ISEKen Batzorde Iraunkorraren

idazkariak azaldutakoa biltzen duen dokumentuaren bitartez, haien ekarpenak kontuan izanda, ISEKi egindako kontsultari erantzutearren.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, Batzorde Iraunkorra amaitutzat jo da.

3.- IRISGARRITASUNAREN EREMUKO ASISTENTZIA ZERBITZU TEKNIKOAK


Irisgarritasunaren eremuko Asistentzia Zerbitzu Teknikoak honako jarduera hauek garatu ditu:

- Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua.
- Batzorde Iraunkorarentzat eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzat laguntza teknikoak.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarentzat Asistentzia Teknika.


3.1.- Kontsultak ebazteko eta aholkularitzako zerbitzua:

Jendeari arreta emateko Zerbitzua da, eta administrazio publikoek eta partikularrek planteaturiko irisgarritasunari buruzko kontsulta guztiak (legediari dagozkionak, teknikoak eta laguntzei buruzkoak) jasotzen eta artatzen dira Zerbitzu horretan. 2004. urtean Zerbitzu horretan artaturiko kontsulten inguruko datuak laburbilduko ditugu jarraian.


2004ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, Zerbitzuan jasotako eta erantzundako kontsultak, guztira, honako hauek izan dira: **229**. Batez beste, hilean 21 kontsulta izan ditu Zerbitzuak, eta kontsulta kopuru handieneko hilabetea otsaila izan zen.



Kontsultak zein **Lurralde Historikotik** egin diren arabera, kontsulta gehienak Bizkaikoak dira (147); bigarren postuan Gipuzkoa dago (57), eta EAeko hiru probintzietatik kontsulta gutxien egin dituen lurraldea Araba da (21). Beste Autonomia Erkidegoetatik ere egin dira kontsulta gutxi batzuk.



Kontsulta gehienak pertsona juridiko pribatuek egin dituzte (% 66,5); jarraian erakunde publikoek (% 25,7), eta azkenik, partikularrek, Zerbitzuaren erabiltzaileen % 7,8 osatzen dutela.




Pertsona juridiko publikoek egindako kontsultei dagokienez, Zerbitzua eskatzen duten Udalek % 75 osatzen dute; horien atzetik beste erakunde publikoak datoz (% 15,4), eta bukatzeko, Eusko Jaurlaritzak berak egindakoak (% 7,7).

Erakunde pribatuei dagokienez, kontsulta gehien egin dituztenak auzokoen elkarteak izan dira, kontsulta guztien % 41,7 eginda; arkitekturaren arloko enpresek eta profesionalak beste % 41 egin dituzte. Zerbitzua baliatzen duten gainerako profesionalak askotarikoak dira, bai jarduera motari dagokionez, bai egindako kontsulta kopuruari dagokionez; guztira % 17,3 osatzen dute.

Erakunde pribatuek egindako kontsulta guztien % 10,1 osatzen dute enpresek egindakoek; bestelako profesionalen kontsultek % 4,3 eta irabazi-asmorik gabeko erakundeenek % 2,9. Nolanahi ere, sektore pribatu horrek egin dizkio kontsulta gehien Zerbitzuari (% 66,5).

Artaturiko kontsultak gaiaren arabera zenbatuz gero, legediari buruzkoak % 85,57 izan dira, alderdi teknikoei buruzkoak % 6,47, eta diru-laguntzei buruzkoak % 7,96.

Kasu askotan, irisgarritasunaren arazoarekin berarekin lotura handia duten arau-kontzeptuak argitu behar izan ditugu. Gehien errepikatu den kasua honako hau izan da: Jabetza Horizontaleko Legetik eratorritako irisgarritasunari buruzko kontsultak (% 58,87).



Kontsulta askotan, Irisgarritasuna Sustatzeko Legeari buruzko galderekin batera, horrekin loturiko beste hainbat kontsulta ere (irtenbide teknikoen eskaerak, etab.) egin dira, gaiak nahastuta. Horrelako askotariko kontsultak egin dituztenak auzokoen elkarteak izan dira, batik bat, eta kasu horietan, honako hauek azaldu behar izaten ziren: Irisgarritasuna Sustatzeko Legea, Jabetza Horizontalaren Legea eta laguntza teknikoak, baita kasuan kasu jaso zitzaketen diru-laguntzak ere. Kontsulta gehienak, ia denak, telefonoz ebatzi dira, eta kasu gutxitan jarri behar izan da hitzordua jendearekin (% 15).

3.2.- Batzorde Iraunkorarentzat eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzat laguntza teknikoa.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarentzat asistentzia teknikoko Zerbitzuak garatu beharreko beste jarduera bat honako hau da: Batzorde Iraunkorari, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari eta sailari berari laguntza teknikoa ematea. Ildo horretan, honako ekintza hauek egin ditugu:

- 1.- Etxebizitza Sailarentzako txostena, Lakuan (Vitoria-Gasteiz) BOE sustapen batean gordetako bi etxebizitzaren esleipendunek behar dituzten egokitzapenak egokiak ote diren aztertzeke.
- 2.- Etxebizitza Sailarentzako txostena, Sailaren web-orrian irisgarritasunaren araudiari ematen zaion trataerari buruz.
- 3.- Etxebizitza Sailarentzako txostena, Irisgarritasun Legearen III. eranskineko 10.2.2. artikulua aplikazio-irizpide teknikoak jasotzen dituen, gordetako etxebizitzetako egokitzapenak sustatzaileek egiteari buruz.
- 4.- Etxebizitza Sailarentzako txostena, Basauriko atari batean, obrak egiteko baimena emateko garaian, aldapetako erabilgarritasun-irizpideei dagokienez.
- 5.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak eskatuta, Etxebizitza Sailarentzako txostena, irisgarritasunaren euskal araudia eta garraioaren berezko araudi komunitarioa bateragarri ote diren aztertzeke.
- 6.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak eskatuta, Etxebizitza Sailarentzako txostena, Gasteizko Eusko Jaurlaritzaren Lakua 2 eraikineraren sartzeko arrapala egokia ote den aztertzeke, irisgarritasun-araudiari dagokionez.
- 7.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak eskatuta, Etxebizitza Sailarentzako txostena, oinezkoen pasabideetarako zoladura-aukerak baloratzeko.
- 8.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzako txostena, hirigunean eskailera mekanikoak, tapiz pirikariak eta igogailuak jartzeari buruzko 68/2000 Dekretuaren II. eranskineko 3.9. artikulua interpretazioari buruz.
- 9.- Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzako txostena, lehendik badiren eraikinetan lokal hutsek edo jarduera-aldaketa duten lokalek dakarten problematikaren aurrean jarraitu beharreko irizpideei buruzkoa.

10.-Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzako txostena, familia bakarreko etxebizitzaren kontzeptua interpretatzeko azterketa eskatzeko.

11.-Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzako txostena, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen zigor-erregimena aplikatzeko ildoetarako buruzkoa.

12.-Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluarentzako txostena, salbuespenak jakinarazteko modurik egokienaren inguruan, Udaletako Zerbitzu Teknikoetarako adierazle argiak erraztuko dizkieten eta irizpideak bateratzeko balioko duten ildoetarako buruz.

3.3.- 2004. urtean osaturiko edo osatze-prozesuan dauden udaletako Irisgarritasun Planei buruzko txostena

Udaletako Irisgarritasun Planak osatzeko zein fasetan dauden jakite aldera, 2004. urtean osaturiko Planei buruzko txostena egin zen. Irisgarritasunaren Eremuko Asistentzia Zerbitzuak jasotako informazioan oinarrituriko datuak bildu ziren, eta beraz, informazioa egiaztatua dago.

Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen II. idazpuruan, 13. artikuluan honako hau xedatzen da: administrazio publikoek lau urteko planak egin beharko dituzte irisgarritasunaren inguruan, eta plan horietan katalogo bat barne hartu beharko da, legean ezarritako irisgarritasun-baldintzen arabera egokitu beharreko erabilera publikoko eraikin eta kanpoko gune guztiekin; ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ere barne hartu beharko dituzte, baita horiek gauzatzeko urteko aurrekontu erabilgarria ere.

Bestalde, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren **2003ko irailaren 3ko AGINDUA** dago, irisgarritasun-planak egiteko, eta hobekuntza-obra burutzeko eta hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko ekipamenduak erosteko Udalei, herri-izaerako gainerako Toki Erakundeei eta irabazi-asmorik gabeko eta onura publikoko erakunde pribatuei diru-laguntzak ematea arautzen duena eta diru-laguntzak jasotzeko eskabidea aurkezteko epea eta lekua zehazten dituena.

Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea 1998ko apirilean hasi zen indarrean, baina irisgarritasun-baldintzak arautzen zituen dekretua onartu gabe zegoenez, Irisgarritasun Planek ez zuten betetzen Legean ezarritako helburua.

2000. urteko ekainaren 12an, 110. EHAAn **68/2000 Dekretua** argitaratu zen; hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen, eta informazio eta komunikazioko sistemen **irisgarritasun-baldintzei buruzkoa da 68/2000 Dekretu hori**, eta 2000ko abenduaren 12an hasi zen indarrean; beraz, 20/1997 Legearen 13. artikuluan ezarritako Irisgarritasun Planen edukia zehazten zuen habeas-a bazegoen lehenagotik.


Jarraian, 2004. urtean osaturiko edo osatze-prozesuan dauden Irisgarritasun Planen zerrendaren azterketako datu nabarmenenak laburbiltzen dituen txostena aurkeztuko dugu.

Lurraldea	Udalerrria	Finantziazioa
Araba	BARRUNDIA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Araba	LABASTIDA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Araba	DONEMILIAGA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Araba	GOBIARAN	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Araba	GASTEIZ	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	ARANTZAZU	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	ARRIGORRIAGA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	BALMASEDA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	BASAURI	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	BERRIZ	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	BILBO	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	BUSTURIA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	DERIO	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	ERMUA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	GARAI	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	LEMOA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	MALLABIA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	MARKINA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	MENDEXA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	MUNDAKA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	ONDARROA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	OTXANDIO	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	ZALLA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Bizkaia	ZAMUDIO	Udala bakarrik
Gipuzkoa	AIA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	BEIZAMA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	BERASTEGI	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	ELDUAIN	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	IDIAZABAL	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	LASARTE	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	LIZARTZA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	OLABERRIA	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*
Gipuzkoa	ZARAUTZ	Udala bakarrik
Gipuzkoa	ZERAIN	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza*


2004. urtean Irisgarritasun Planak egin dituzten Udalerriak

Lurraldea	Udalerri kop.	Plana badutenak		2004an izango dutenak	
ARABA	51	17	% 33,33	5	% 9,80
BIZKAIA	111	44	% 39,64	19	% 17,12
GIPUZKOA	88	48	% 54,55	9	% 10,23
EAE GUZTIRA	250	109	% 43,60	33	% 13,20


2004ko Planak Lurraldearen arabera



2004ko Planak, Plan guztiekin alderatuta






Egindako eta egiteko dauden Irisgarritasun Planak



Irisgarritasun Planen onuradun diren biztanleak

Lurraldea	Biztanleak	Plana badutenak	2004an izango dutenak
ARABA	291.860	269.615 % 92,38	224.896 % 77,06
BIZKAIA	1.133.444	862.362 % 76,08	478.070 % 42,18
GIPUZKOA	682.977	542.737 % 79,47	45.413 % 6,65
EAE GUZTIRA	2.108.281	1.674.714 % 79,43	748.349 % 35,50





4.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUARI PROPOSATURIKO GAIEN LABURPENA

Irisingarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluan kontsultak jaso eta erantzun egiten dira, araudiaren aplikazioaren inguruan, salbuespenen komunikazioaren inguruan, etab. Segidan, gai horien laburpena azalduko dugu.

4.1.- Txosten-eskaerak eta Kontsultak

2004. urtean, Irisingarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari zuzenean bidalitako hainbat txosten-eskaera jaso ditugu irisingarritasunarekin loturiko gaiet buruz; halaber, zenbait kontsulta ere izan ditugu, orain arte, guztira **hogeita bost espediente** osatuta.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia	Erantzuna
01.04 ACC	Arartekoa	EAE	ISEKek egindako Urteko Txostenen eskaera	Bidali dira

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia	Erantzuna
02.04 ACC	Arkitektoa	Gipuzkoa	Norberaren etxebizitzarako Irisgarritasun Arau Teknikoak aplikatzea.	Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. eranskineko 2.5. artikulua. Norberaren etxebizitzaren berritze-obretan, legean ezarritakoa ez da aplikagarri izango
03.04 ACC	Santurtziko Udala	Bizkaia	Minusbaliotasuna dutenentzako gordetako etxebizitzak liberalizatzeko prozedura.	Etxebizitza Sailburuordetzaren abenduaren 3ko 6/2002 Jarraibidea aipatu da.
04.04 ACC	Usurbileko Udala	Gipuzkoa	Minusbaliotasuna dutenentzako gordetako aparkalekuetako txartela ematea.	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizate Zuzendaritza arduratzen da dokumentazioa argitaratzeaz eta eskaintzeaz (abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuaren 5. artikulua, abenduaren 29ko 248. EHAA).
05.04 ACC	Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea	EAE	ISEKek egindako Urteko Txostenen eskaera	Bidali dira.
06.04 ACC	Arabako Lurralde Ordezkaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	Araba	Egokitutako etxebizitzatan, bigarren komunaren arazoa, eta trasteleketako ateen zabalera.	Komun bat bakarrik dagoen kasuetan, dutxa eta bainuontzia izango ditu, komunaz eta konketaz gain, eta 1,80 m-ko biratze-erradioa izango du. Bigarren komun bat izatekotan, batean bainuontzia eta bestean dutxa jar daitezke. Bainuontzia dagoen komunak erabilgarria izatearekin nahikoa du (1,40 m-ko biratze-erradioa.) Etxebizitza-eraikinetako elementu komunetako paseko atea 0,90 cm-koak izango dira, baina minusbaliotasun fisikoa dutenentzat diren etxebizitzari loturiko trastelekuen kasuan soilik eska daitezke zabalera hori. Nolanahi ere, gutxieneko zabalera 0,80 cm-koa izango da kasu guztietan.
07.04 ACC	Udala	Gipuzkoa	Ostalaritzako negozioa jarriko den lokal batean (lehendik bazegoena), irisgarritasun-araudiaren betetze mailari buruzko informazioa.	Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. eranskinean aurreikusitakoa azaldu da.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia	Erantzuna
08.04 ACC	Sustatzailea	Araba	Babes ofizialeko bi etxebizitza egokitzeko aholkularitza	Esleipendunaren ezaugarrietara egokitu beharko dira.
09.04 ACC	Foru Aldundia	Araba	Adinekoen egoitzak eta etxebizitza komunitarioak.	Txostena erantsi da. Irizpidea: erabateko irisgarritasuna, baita lokalaren eta kanpoaldearen arteko goitik beherako komunikazioan ere.
10.04 ACC	Udala	Araba	Salbuespenak. Kasuak	Indarreko legedian aurreikusitako eskumen-eremuari eta funtzionamenduari buruzko informazioa eman da.
11.04 ACC	Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea.	Bizkaia	Bilboko Metroaren instalazioetan, gaueko ordutegian gabeziak.	Garraio Partzuergoarekin harremanetan jarri da, dagoen arazoaren berri emateko.
13.04 ACC	Partikularra	Bizkaia	Entzumen-minusbaliotasuna duen lagunarentzat egokitzea etxebizitza.	III. eranskineko 2. puntuaren 10.2.3. artikulua. Ateko txirrinaz ohartarazteko edo bideo-atezaineko sistema instalatzea ahalbidetuko duen zirkuitu elektrikoa jartzeko beharrezko kanalizazioak.
25.04 ACC	Arkitektoa	Gipuzkoa	Solairu bat baino gehiagoko etxebizitza-proiektuetan igogailua jartzea eskatuko ote den.	Jasogailu bat jartzeko aukera erraztuko duten ezaugarri teknikoak eta diseinua izan beharko ditu.
26.04 ACC	Udala	Gipuzkoa	Eraikin bateko elementu komun berritzeak legedia bete behar ote duen.	Elementu komunek irisgarriak izan behar dute.
27.04 ACC	Udala	Bizkaia	Egokituriko etxebizitzak esleitzeko eta liberalizatzeko prozedurari buruzko informazioa.	Etxebizitza Sailburuordetzaren abenduaren 3ko 6/2002 Jarraibidea, babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan. Etxebizitza librearen kasuan, Etxebizitza Zuzendaritzari jarraibideak eskatzea gomendatzen da
28.03 ACC	Udala	Bizkaia	Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua aplikatzea, 2000ko abenduaren 4ko data duen obra-baimenaren kasuan.	Aurkezturiko kasu horretan, udaleko teknikariaren argudio juridikoa berretsi da, araudia ez aplikatzearen inguruan.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia	Erantzuna
29.04 ACC	Arkitektoa	Gipuzkoa	Industria-lokala egokitzea.	<p>Industria-erabilerako eraikinetan, eta nahiz eta onartzeko eskubidea erreserbatua izan, jendearentzako zabalik egoten diren eremuetan, bide publikoko sarbideetan irisgarritasuna eska daiteke; gurpildun aukien erabiltzaileentzako harrera-toki egokia izatea eta komun irisgarria izatea ere eska daitezke.</p> <p>Bulego profesionaleko jardueratzat jotzen badu Udal Agintaritzak, berritzeko, handitzeko edo aldatzeko obren kasuan, 68/2000 Dekretuaren V. eranskinaren 2.2. artikuluan aurreikusitakoa aplikatu beharko litzateke.</p>
30.04 ACC	Igogailuak jartzen dituen enpresa.	Gipuzkoa	Proiektu pribatuari buruzko Txostena eskatu du.	Proiektuek irisgarritasunari buruzko euskal araudia betetzen ote duten egiaztatzeko eskumena Udal Agintaritzari dagokio; hori dela eta, ISEKera, Udalera, enpresara eta dagokion Komunitatera jo du.
31.04 ACC	Udala	Bizkaia	Salbuespenak. Funtzionamendua.	Salbuespenaren dinamika eta aplika daitekeen kasuak azaldu dira.
32.04 ACC	TEA Bilboko Udal Etxebizitzak.	Bizkaia	Salbuespenak. Funtzionamendua.	Salbuespenaren dinamika eta aplika daitekeen kasuak azaldu dira. Jarduera-eremua udalerrria da.
33.04 ACC	Partikularra	Araba	Mugikortasun murriztua dutenentzako egokituriko BOEren neurriak.	2002ko abenduaren 30eko Agindua aldatzeari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko abuztuaren 4ko Agindua azaldu da (gehieneko neurria handitu da, 90 m ² -ra)
34.04 ACC	Udala	Bizkaia	Salbuespenak. Funtzionamendua.	Salbuespenaren dinamika eta aplika daitekeen kasuak azaldu dira. Jarduera-eremua udalerrria da.

Erregistroa	Erakundea	Lurraldea	Gaia	Erantzuna
35.04 ACC	Udala	Gipuzkoa	Hiri-ingurunean eskailera mekanikoak, tapiz pirikariak eta igogailuak jartzeari buruzko 68/2000 Dekretuaren II. eranskineko 3.9. artikulua interpretazioa/ balorazioa.	Aurkezturiko gaia eta eraginpean harturiko udalgunea baloratzen dituzten txosten teknikoak eta juridikoak igorri dira.
36.04 ACC	Udala	Bizkaia	Proiektu pribatuari buruzko Txostena eskatu da.	ISEKen jarduera-eremuari buruzko informazioa eman da, baita irisgarritasunari buruzko araudian aurreikusitako eginkizun-eskumenari buruzkoa ere: proiektuek irisgarritasunari buruzko euskal araudia betetzen ote duten egiaztatzeko eskumena Udal Agintaritzari dagokio.
37.04 ACC	Etxebizitza Sailaren Lurralde Ordezkaritza	Gipuzkoa	Etxebizitzak egokitzeko irizpideak.	Etxebizitzak egokitzeko jarduera-ildoei buruzko Txostena igorri da.

4.2.- Salbuespenak jakinaraztea

68/2000 Dekretuaren V. eranskineko (Eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obrak urbanizazio eta eraikinetan) 3.3. puntuari jarraiki, 2004. urtean, gaur arte, irisgarritasun-araudia betetzeko salbuespena aplikaturiko **104 espediente** helarazi zaizkio Kontseiluari. Salbuespena aplikatu dutela Kontseiluari jakinarazi dioten Udalak honako hauek dira:

Erregistroa	Udala	Arrazoia
01.04 EXE/CVPA	Zarautz	Salegi kaleko 4.ean dagoen zapata-denda egokitzeko obrak. Salbuespena eman zaio, honako arrazoi hauengatik: 1. Sarrerako atea hareharrizko harlanduz osatua dago, eta lokalerako sarbidea mugatzen dute harlandu horiek, baina herrigune historikoaren ezaugarri bereizgarri izaki, nabarmendu eta zaindu egin behar dira. 2. Bide publikoaren eta dendaren arteko koska (- 0,30 m) gainditzeko modu bakarra eskailera da, beheko solairuaren sabaiak oso altuera txikia baitu kaletik (2,20 m); eta denda bera ere oso txikia denez, ezinezkoa da inolako aldaparik egitea, modu logikoan.
02.04 EXE/CVPA	Zarautz	Salegi kaleko 84.ean dagoen arropa-denda egokitzeko obrak. Salbuespena eman zaio, bide publikoaren eta dendaren arteko koska gainditzeko modu bakarra eskailera delako. Ez dago aldapa eraikitzeko modurik.
03.04 EXE/CVPA	Sestao	Fleming Doktorea kaleko 3.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoiak. Jakinarazi egin zaigu, besterik gabe (68/2000 Dek. V. erans, 3.3. art.).
04.04 EXE/CVPA	Portugalete	Luis Galdos kaleko 10.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoiak. Jakinarazi egin zaigu, besterik gabe (68/2000 Dek. V. erans, 3.3. art.).
05.04 EXE/CVPA	Portugalete	Correos kaleko 28.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoiak. Jakinarazi egin zaigu, besterik gabe (68/2000 Dek. V. erans, 3.3. art.).
06.04 EXE/CVPA	Portugalete	Barrengoitia kaleko 16.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoiak. Jakinarazi egin zaigu, besterik gabe (68/2000 Dek. V. erans, 3.3. art.).
07.04 EXE/CVPA	Durango	Artekale 17.eko behean dagoen Estetika Zentroa berritzea. Salbuespena eman da bai lokalerako sarbidean —solairuko egiturazko habe bat dago eta ezinezkoa da aldapa egitea—, bai barruko komunikazio horizontalean —egokituz gero, azalera handia alferrik galduko litzateke, eta lokalean jende asko ibiltzen ez denez, berritzea garestia ez ezik, errentagarritasun txikikoa ere izango litzateke—.
08.04 EXE/CVPA	Zarautz	Erribera Zaharra kaleko 4.ean dagoen Arte eta Pintura Tailerra berritzea. Salbuespena emateko arrazoiak ez dira zehaztu.
09.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Pormetxeta kaleko 18.ean dagoen ile-apaindegiko lokala egokitzeko obrak. Komun egokitua jarritz gero, lokalaren azalaren % 10 baino gehiago hartuko luke.

Erregistroa	Udala	Arrazioa
10.04 EXE/CVPA	Barakaldo	San Antolin kaleko 1.ko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Kabinaren eta sartzeko plataformaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren neurriengatik. 34 cm-ko koska egongo da kaleko sarrera-kotarekiko, koska hori gaintitzen edo ezabatzen duen irtenbide egingarriak gauzatzea ezinezkoa baita, teknikoki.
11.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Foruen Pasealekua kaleko 12.ean dagoen aseguru-bulegoaren lokaleko fatxada berritzeko obrak. Ezin da aldaparik eraiki, azpian sotoa dagoelako.
12.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Castor Andechaga kaleko 4.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren neurriengatik. Atariko eskailera-mailak saihestea ezinezkoa da, ez baitago tokirik.
13.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Larrea kaleko 17.eko Jabekideen Komunitatean igogailua aldatzeko obrak. Igogailuaren eta sartzeko tokiaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren neurriengatik.
14.04 EXE/CVPA	Bermeo	Doniene kaleko 5.eko etxebizitza-eraikina berritzeko obrak. Ezin da igogailu egokitua jarri, sartzeko gunea txikia delako.
15.04 EXE/CVPA	Bermeo	Herrigunean, Erremedio kaleko 36.ean dagoen eraikina berritzeko obrak. Ezin da igogailurik jarri, partzelaren zati erabilgarria oso estua delako.
16.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Batzar Nagusien kaleko 11.ean dagoen ile-apaindegiko lokala egokitzeko obrak. Komun egokitua jarriz gero, lokalaren azaleraren % 10 baino gehiago hartuko luke.
17.04 EXE/CVPA	Erandio	Ollaga kaleko 3.ean dagoen Puba berritzeko obrak. Ez da zehaztu salbuespena zergatik eman den.
18.04 EXE/CVPA	Zarautz	Orape kaleko 20.ean dagoen lokala egokitzeko obrak. Ez da zehaztu salbuespena zergatik eman den.
19.04 EXE/CVPA	Legazpi	Kale Nagusiko 21.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Kabinaren eta sartzeko tokiaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren eta atariaren neurriengatik.
20.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Batzar Nagusien kaleko 3.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Erabilgarritasun-irizpideak betetzea eragozten dute harlauzaren eta eskaileraren neurriek, baita atariaren neurriek ere.
21.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Autonomia kaleko 16.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren neurriengatik.
22.04 EXE/CVPA	Zarautz	Nafarroa kaleko 1.an dagoen lokala egokitzeko obrak. Ez dira zehaztu salbuespena emateko arrazioak.
23.04 EXE/CVPA	Ermua	Goien Kaleko 5.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Erabilgarritasun-irizpideak aplikatzea eragozten dute eraikinaren egiturazko neurriek eta eskaileraren zabalerak.
24.04 EXE/CVPA	Sestao	Los Baños kaleko 8.eko Jabekideen Komunitatean ataria berritzeko obrak. Ez dira zehaztu salbuespena emateko arrazioak.
25.04 EXE/CVPA	Sestao	Los Baños kaleko 37.eko Jabekideen Komunitatean ataria berritzeko obrak. Ez dira zehaztu salbuespena emateko arrazioak.
26.04 EXE/CVPA	Sestao	Mariana Pineda kaleko 6.eko Jabekideen Komunitatean ataria berritzeko obrak. Ez dira zehaztu salbuespena emateko arrazioak.
27.04 EXE/CVPA	Sestao	Autonomia kaleko 6.eko Jabekideen Komunitatean ataria berritzeko obrak. Ez dira zehaztu salbuespena emateko arrazioak.

Erregistroa	Udala	Arrazioa
28.04 EXE/CVPA	Elgoibar	Bernardo Ezenarro kaleko 7.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Kabinaren neurriek, eta atearen eta eskailburuen zabalera ez dituzte betetzen erabilgarritasun-irizpideak, eskaileraren eraginez.
29.04 EXE/CVPA	Zumarraga	E. Orbegozo kaleko 21.eko behean Hertz Klinika irekitzea. 10 cm-ko koska dago, baina ezin da ezabatu beheko solairuko habea delako, eta horretaz gain, ezabatuz gero, kaleko ur-bilketan eragingo luke. Minusbaliotasun fisikoa dutenentzat aldapa edo arrapala mugikorra jarriko da.
30.04 EXE/CVPA	Portugalete	Juan XXIII.a kaleko 10.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazioa. Jakinarazi egin zaigu, besterik gabe (68/2000 Dek. V. erans, 3.3. art.).
31.04 EXE/CVPA	Portugalete	San Roke kaleko 13.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazioa. Jakinarazi egin zaigu, besterik gabe (68/2000 Dek. V. erans, 3.3. art.).
32.04 EXE/CVPA	Getxo	Santa Ana kaleko 1.an dagoen emakumezko arropa-dendako lokala egokitzeko obrak. Sarreran koska bat dago baina ezin da ezabatu, egiturazko elementua baita; arrapala desmuntagarria ere ezin da jarri, zabalduz gero, bide publikoa inbadituko bailitzateke eta geratuko litzatekeen maldak baimendutako gehienekoa (% 10) gaitutuko bailuke. Aurrerago, 2004ko maiatzaren 24an, Alkatetzaren Dekretua igorri zuen Udalak, behin betiko salbuespena emanez: antza, eskatzaileak ez zuen Komunitatearen baimena lortu koska hori aldatzeko, elementu komuna izateagatik.
33.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Juan Sebastian Elkano kaleko 16.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren harlauzarengatik, eskaileraren neurriengatik, eta atariko neurriengatik.
34.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Askatasun Etorbideko 13.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren harlauzarengatik, eskaileraren neurriengatik, eta atariko neurriengatik.
35.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Balejo kaleko 9.ean dagoen taberna berritzeko obrak. Lokaleko komunak egokitzeko neurriak handiegiak dira, lokalaren azalera guztiaren % 10 gaitutzen baitute.
36.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Dr. Fleming kaleko 17.ean dagoen taberna berritzeko obrak. Lokaleko komunak egokitzeko neurriak handiegiak dira, lokalaren azalera guztiaren % 10 gaitutzen baitute.
37.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Karranzairu kaleko 2.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren neurriengatik.
38.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Isaac Peral kaleko 1.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren eta atariaren neurriengatik.
39.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Askatasun Etorbideko 20.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren harlauzarengatik, eskaileraren neurriengatik, eta atariko neurriengatik.
40.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Teixidor kaleko 4.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea, eta fatxada nagusia eta atzekoa konpontzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskailburuen eta atariaren neurriek eragozten baitute.
41.04 EXE/CVPA	Zarautz	Ipar Kaleko 14.ean dagoen lokala egokitzeko obrak. Ez dira zehaztu salbuespena emateko arrazioak.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
42.04 EXE/CVPA	Bilbo	Goikolau Kobaren kaleko 1.an dagoen taberna berritzeko obrak. Minusbaliotasuna dutenentzako komunak 1,75 m-ko altuera du, baina komuna bera dagoen tokian 2,30 m-ra heltzen da.
43.04 EXE/CVPA	Portugalete	Grupo El Metal kaleko 9.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoia. Jakinarazi egin zaigu, besterik gabe (68/2000 Dek. V. erans, 3.3. art.).
44.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Bagaza kaleko 7.ean dagoen taberna berritzeko obrak. Lokalera sartzeko arrapala egitea ezinezkoa da, egituraren eta itxuraren arrazoiengatik.
45.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Gabriel Aresti kaleko 12.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak eta sartzeko tokiaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren neurriek eragozten baitute.
46.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Zorrilla kaleko 12.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren harlauzarengatik, eskaileraren neurriengatik eta atariko neurriengatik.
47.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Publizitate-agentziako lokala egokitzeko obrak. Lokalera sartzeko arrapala egitea ezinezkoa da, egituraren arrazoiengatik.
48.04 EXE/CVPA	Lasarte-Oria	Oztaran Plazako 4.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Eskaileretako tarteko eskailburuetan geratzen da igogailua; beraz, etxebizitzaren sarrerako mailara ez da heltzen. Bizilagunen bat minusbaliatua geratzekotan, jasogailua jarriko litzateke.
49.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Astarloa kaleko 11.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Kabinaren neurriak ezin dira egokitu, muga fisikoak eta egiturazkoak daudelako.
50.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Lasesarre kaleko 12.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu eta atarian ezin da aldapa eraiki, eskaileraren eta atariaren muga fisikoek eta egiturazkoek eragozten baitute.
51.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Bideo-klubeko lokala egokitzeko obrak. Lokalera sartzeko aldapa egitea ezinezkoa da, ezabatu ezin diren egiturazko elementuak daudelako.
52.04 EXE/CVPA	Portugalete	Juan XXIII.a kaleko 12.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoia. Jakinarazi egin zaigu, besterik gabe (68/2000 Dek. V. erans, 3.3. art.).
53.04 EXE/CVPA	Portugalete	Andre Mariaren Mirabeen Zeharbidea kaleko 5.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoia. Jakinarazi egin zaigu, besterik gabe (68/2000 Dek. V. erans, 3.3. art.).
54.04 EXE/CVPA	Zarautz	Foruen Kaleko 6.ean dagoen ogi-salmentako eta kafe-dastaketako lokala egokitzeko obrak. Komunak ez dira jarriko beheko solairuan, jendearentzako oso toki gutxi geratuko litzatekeelako; sotoan egongo dira komunak, izan ere, nahikoa altuera ez duenez, sotoa ezin baita jendearentzako gune irekitzat hartu.
55.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Juan de Garay kaleko 22.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren husteko baldintzei eragingo litzatekeelako eta suteen aurkako araudia ez lukeelako beteko.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
56.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Nerbioi kaleko 2.ean dagoen taberna berritzeko obrak. Komunak egokitzeko neurriak handiegiak dira, lokalaren azalera guztiaren % 10 gainditzen baitute.
57.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Katalunia kaleko 8.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren husteko baldintzei eragingo litzaiekeelako eta suteen aurkako araudia ez lukeelako beteko.
58.04 EXE/CVPA	Basauri	Jarraituko den udal-irizpidearen berri eman da: ostalaritzako lokaletan komun egokitua izateko betebeharra betetzeaz salbuesita geratuko dira, jendearentzako azalera erabilgarria (lokalaren azalera erabilgarria, barra barruko tokia, biltegia eta sukaldea kenduta) 40 m ² edo gutxiago duten lokalak.
59.04 EXE/CVPA	Zarautz	Herrikobarra kaleko 14.an dagoen lokala egokitzeko obrak. Ez dira zehaztu salbuespena emateko arrazoiak.
60.04 EXE/CVPA	Lekeitio	Paskual Abaroa Etorbideko 26bis atariko lonjan hortz-klinikaren egokitze-obrak. Sarrerako koska ezin da ezabatu, egiturazko elementua delako, eta arrapala finkoa jartzea ere ezinezkoa da, oso garestia baita. Arrapala mugikorra jarriko da.
61.04 EXE/CVPA	Zaldibar	Euskalerrria Kaleko 8.ean dagoen mertzeriako lokala egokitzeko obrak. Salbuespena eman zaio, sarrerako atea egokitzeak gehiegizko gastua baitakar, hain zuzen ere, jarduera osoaren ia % 40. Era berean, komuna ere ez da egokituko, oso garestia delako eta ez delako jendeak erabiltzeko.
62.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Juan de Garay kaleko 16.eko Jabekideen Komunitatean igogailua jartzea, patioetik. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, patioaren neurriek eragozten dutelako.
63.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Uribe Merindalea kaleko 2.ean dagoen koltxoien eta ehungintzako osagarrien dendako lokala egokitzeko obrak. Sarrerako harmailak ezin dira egokitu, txarrantxa-hobia dagoelako eta azpian sotoa duelako, egiturazkoak biak ere.
64.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Balejo kaleko 5.ean dagoen ile-apaindegiko lokala egokitzeko obrak. Lokala irisgarri bihurtzeko, komuna egokitu eta espaloitik sartzeko arrapala egin beharko lirateke, baina obra horiek handiegizat jotzen dira, lokalaren azalera guztiaren % 10 baino gehiago hartuko bailukete.
65.04 EXE/CVPA	Zarautz	San Frantzisko kaleko 1.an, 1. solairuan dagoen lokala egokitzeko obrak. Ez dira zehaztu salbuespena emateko arrazoiak.
66.04 EXE/CVPA	Lasarte - Oria	Kale Nagusia 21.eko trastelekuak egokitzeko obrak. Igogailua ezin da sotoraino jaitsi, egiturazko elementuei eragiten baitie.
67.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Juan Sebastian Elkano kaleko 29.ean dagoen ile-apaindegiko lokala egokitzeko obrak. Komuna irisgarri bihurtzeko neurriak handiegiak dira, lokalaren azalera guztiaren % 10 baino gehiago hartuko lukeelako.
68.04 EXE/CVPA	Gobiaran	Karankako kaleetan zoladura jartzeko obrak. Irisgarritasunari buruzko araudia ezin da bete maldaren inklinazioari dagokionez. Kaleen antolaketa topografikoa dela eta —mendi-hegal aldapatsuan baitago—, ezinezkoa da sARBIDEKO beste aukerarik planteatzea, izan ere, irisgarritasun-baldintzak betetzen dituzten kaleekin ezin baita inolako zirkuiturik osatu. Proiektua erantsia dago.
69.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Landaberri kaleko 4.ean igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskailburuaren neurriek eragozten dutelako.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
70.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Botxo kaleko 7.ean igogailua jartzea. Igogailuaren kabinaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren azalerak eragozten duelako.
71.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Granados kaleko 2.ean igogailua jartzea, fatxadatik. Ezin da kabina handiagoa sortu, igogailuarekin aurrez aurre dauden etxebizitzetako geletako argizatzeari kalterik eragin gabe.
72.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Henao kaleko 78.ean igogailua jartzea, fatxadatik. Ezin da kabina handiagoa sortu, eraikinaren huste-baldintzei eragin gabe.
73.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Gurutzeta kaleko 3.ean igogailua jartzea. Ezin da kabina handiagoa sortu, eskaileraren huste-baldintzei eta suteen aurkako babeserako NBE-CPI-96 araudiari eragin gabe.
74.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Euskalduna kaleko 2.ean igogailua jartzea, fatxadatik. Ezin da kabina handiagoa sortu, eraikinaren huste-baldintzei eragin gabe.
75.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Maria Soroslea kaleko 10.ean igogailua jartzea, patiotik. Patioaren neurriak ikusita, salbuespena eman zaio.
76.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Granados kaleko 3.ean igogailua jartzea, fatxadatik. Ezin da kabina handiagoa sortu, igogailuarekin aurrez aurre dauden etxebizitzetako geletako argizatzeari kalterik eragin gabe.
77.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Goya kaleko 19.ean dagoen taberna berritzea. Komunak egokitzeko neurriak handiegiak dira, lokalaren azalera guztiaren % 10 baino gehiago hartuko lukeelako. HAPNren 5.01.51. artikulua aplikatuta, salbuespena justifikatua dago.
78.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Uribe Merindalea kaleko 14.ean igogailua jartzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren harlauzarengatik, eskaileraren neurriengatik, eta atariko neurriengatik.
79.04 EXE/CVPA	Barakaldo	La Calzada kaleko 11.ean igogailua jartzea, fatxadatik. Ezin da kabina handiagoa sortu, igogailuarekin aurrez aurre dauden etxebizitzetako geletako argizatzeari kalterik eragin gabe.
80.04 EXE/CVPA	Portugalete	Hermanos Instrucción Cristiana kaleko 5.ean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoia, jakinarazi egin zaigu, besterik gabe.
81.04 EXE/CVPA	Portugalete	Gregorio Uzkiano kaleko 22.ean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoia, jakinarazi egin zaigu, besterik gabe.
82.04 EXE/CVPA	Portugalete	Fray Gabriel Lazurtegi kaleko 4.ean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoia, jakinarazi egin zaigu, besterik gabe.
83.04 EXE/CVPA	Portugalete	Grupo del Metal kaleko 6.ean igogailua jartzea. Ez da zehaztu salbuespena emateko arrazoia, jakinarazi egin zaigu, besterik gabe.
84.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Gurutzeta kaleko 1.an igogailua jartzea. Ezin da kabina handiagoa sortu, eskaileraren huste-baldintzei eta suteen aurkako babeserako NBE-CPI-96 araudiari eragin gabe.
85.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Espronceda kaleko 2.ean igogailua jartzea, patiotik. Patioaren neurriak ikusita, salbuespena eman zaio.
86.04 EXE/CVPA	Erandio	“ONENA” instalazio higiezina. Inbertsio guztiaren balioak gehiegizko kostua izateagatik eman da salbuespena.
87.04 EXE/CVPA	Alegria-Dulantzi	Ortubitarte kaleko 6.ean igogailua jartzea. Ezin dira neurri egokiak lortu etxebizitzetara eragin gabe.

Erregistroa	Udala	Arrazoia
88.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Gipuzkoa kaleko 14.ean dagoen bitxi-denda egokitzeko obrak. Lokalera sartzeko arrapala egitea ezinezkoa da, egituraren arrazoiengatik, ezin baita dagoen koska gainditu.
89.04 EXE/CVPA	Aretxabaleta	Lehen arropa-denda zegoen tokian, etxetresna elektrikoaren saltokia irekitzeko baimena. Egin beharreko inbertsioan (lokalaren barne-estaldurak soilik) gehiegizko gastua izango litzatekeelako eman zaio salbuespena. Irekitze Baimena da.
90.04 EXE/CVPA	Beasain	Nafarroa Etorbideko 19.ean igogailua jartzeko baimena. Salbuespena eman da honako hauei dagokienez: sartzeko plataformari, kabinaren neurriari eta sartzeko ateei dagokienez, izan ere, eraikina berezi samarra baita, eta eskailera-kaxaren neurriak ikusita, eskailera ia erabiltezin geratuko litzateke; horretaz guztiaz gain, gastua ere izugarria izango litzateke.
91.04 EXE/CVPA	Portugalete	Igogailua jartzeko obrak gauzatzeko Baimena eman dela jakinarazi da. Salbuespena eman ote den ez da zehaztu, ezta beste ezer arrazoitut ere. Azalpen-gutuna bidali dugu.
92.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Francisco Gómez kaleko 4.ean igogailua jartzeko baimena. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren husteko baldintzei eragingo litzatekeelako, izan ere, eskaileraren harlauzak eta eskaileraren neurriak eragozten baitute.
93.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Ravel kaleko 2.ean igogailua jartzea fatxadatik. Salbuespena eman zaio, ezin delako kabina handiagoa sortu, eskaileraren huste-baldintzei eragin gabe.
94.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Resurreccion Maria de Azkue kaleko 42.ean igogailuaren ibilbidea aldatzea eta ataria berritzea. Eskaileraren eta atariaren muga fisikoak eta egiturazkoak ikusita, salbuespena eman zaio.
95.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Dolores Ibaruri kaleko 40.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman zaio, ezin delako kabina handiagoa sortu, eskaileraren huste-baldintzei eragin gabe.
96.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Francisco Gómez kaleko 10.ean igogailua jartzea. Igogailuaren neurriak ezin dira egokitu, eskaileraren harlauzak eta eskaileraren neurriak eragozten baitute.
97.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Enkarterri kaleko 17.ean igogailua jartzea. Eskaileraren eta atariaren muga fisikoak eta egiturazkoak ikusita, salbuespena eman zaio.
98.04 EXE/CVPA	Basauri	Luis Petralanda kaleko 2.ean dagoen higiezinean sartzeko atarian dauden arkitektura-oztopoak ezabatzeko bi arrapala egitea. Aurreikusitako aldapak egokiak ez direla azaltzeko gutuna bidali dugu.
99.04 EXE/CVPA	Zaldibar	Agiñibar kaleko 1.ko ataria berritzea. Arrapalaren atearen bi aldeetako toki libreak 140 cm edo gehiagokoa izan beharko luke, baina baldintza hori kanpoaldean soilik betetzen da; arrapalak 4,40 m-tik gorako luzera du, legedian eskaturiko 3 m-ak gaindituta.
100.04 EXE/CVPA	Sestao	Udal-hilerria berritzea. Irisgarritasun-baldintzak betetz gero... jendeak erabiltzeko igogailua jarri beharko litzateke; baina aurkezturiko proiektu berriari jarraiki, hilkutxak goitik behera garraiatzeko soilik izango den karga-jasogailua izango luke zuloak, izan ere, jendeak erabiltzeko igogailu itxia kanpotik jartzea oso garestia izango bailitzateke, eta ez da irtenbide egokia.
101.04 EXE/CVPA	Oñati	Apaolaza A.kaleko 2.ean igogailua jartzea. 0,62 x 1,10 neurriak dituen kabinadun igogailua jartzeko baimena eman dutela jakinarazi dute.

Erregistroa	Udala	Arrazioa
102.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Herriko Plazako 7.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman zaio, igogailuaren kabinaren neurriak ezin baitira egokitu, eskaileraren husteko baldintzei eragin gabe, eskailerak ez direlako behar bezain zabalak; horretaz gain, igogailuan sartzeko tokia ere eragozpen da, tarteko solairuan hasten baita.
103.04 EXE/CVPA	Barakaldo	Sagasti kaleko 4.ean igogailua jartzea. Salbuespena eman zaio, eskailerak ez direnez behar bezain zabalak, igogailuaren kabinaren neurriak ezin direlako egokitu.
104.04EXE/CVPA	Gasteiz	San Prudentzio kaleko 9.eko atarian, bizilagun batek aldaketa-proiektua proposatu du, eta proiektu horren irisgarritasun-baldintzen Azterketa bidali digute. Hirigintza Saileko Bide Publikoko Zerbitzu Teknikoen ustez, proiektuan aurreikusten den plataforma jasotzailearen ibilbidea luzatzeko aukera aztertu behar da, kanpoan dauden bi eskailera-mailak gainditzearren.

2003. urtearekin alderatuta, askoz ere salbuespen gehiago jaso ditugu (35 espediente gehiago, % 51ko hazkundera). Nabarmentzeko moduko datu bat: salbuespenen erdiak Udal berak eman ditu.

Horretaz gain, ordura arte salbuespenik jakinarazi ez zuten hamar udal hasi dira jakinarazten (*).

Lurralde Historikoa	Udala	Salbuespen kop.
Bizkaia	Barakaldo	52
Bizkaia	Portugalete	13
Gipuzkoa	Zarautz	9
Bizkaia	Sestao	6
Bizkaia	Bermeo	2
Bizkaia	Erandio	2
Gipuzkoa	Lasarte – Oria*	2
Araba	Alegria – Dulantzi*	1
Araba	Gobiaran*	1
Araba	Gasteiz	1
Bizkaia	Basauri	2
Bizkaia	Bilbo	1
Bizkaia	Durango*	1
Bizkaia	Ermua*	1
Bizkaia	Getxo	1
Bizkaia	Lekeitio*	1

Lurralde Historikoa	Udala	Salbuespen kop.
Bizkaia	Zaldibar	2
Gipuzkoa	Aretxabaleta*	1
Gipuzkoa	Elgoibar*	1
Gipuzkoa	Beasain	1
Gipuzkoa	Legazpi	1
Gipuzkoa	Oñati	1
Gipuzkoa	Zumarraga*	1

Aurreko ekitaldietan bezalaxe, salbuespen ohikoenak honako hauek dira: jabekideen komunitateetan igogailuak jartzearekin loturikoak, kasu askotan ezin baitira kabinaren eta sartzeko plataformaren neurriak egokitu, eskaileraren eta atariaren neurrien eraginez.

Halaber, salbuespen ugari izan dira arrazoia zehaztu gabekoak, eta jakinarazi soilik egin zaizkigu.

V. eranskineko 3.3. artikulua hori aplikatzea eragin zuen kasuistikari dagokionez, hona hemen laburpen-taula:

Obra mota	Salbuespen kop.
Lehendik bazegoen eraikinean igogailua jartzea	57
Ataria berritzea	10
Lokala egokitzea edo berritzea	
Sartzeko arrapala	12
Komun egokituak	12
Gastu handiegia	2
Daturik gabe	7
Urbanizatzeko obrak	2

5.- UDALETAKO IRISGARRITASUN PLANETARAKO ETA OBRETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN DEIALDIA.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren helburu estrategikoa da birgaitze-jarduerak sustatzea, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean xedaturikoari atxikitzeko gure ingurunea; ez dugu ahaztu behar, gainera, gizarte-berezitasuneko eraikin eta hiri-inguruneetako esku-hartzeak direla, eta gizarte-arloko erabilgarritasuna duten lehen mailako ekipamenduak jartzeko edo hiri-ingurunean ibilbide irisgarriak sortzeko izaten direla.

Udalenak eta Erakunde Txikienak diren eraikinak eta hiri-ingurunea birgaitzeko jarduerak diruz lagundu izan ditu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legean eta lege hori garatzeko arau teknikoetan ezarritakoaren arabera egokitzeko.

2003. urtean, abenduaren 4ko 20/1997 Legeko irisgarritasun-araudiari atxikitzeko birgaitze-obrak gauzatzeko finantziazioa eskatu diote Udalek eta Erakunde Txikiek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, hogeita hamabi milioi hogeita hemeretzi mila hirurehun eta berrogeita zazpi euro eta hirurogeita hamabi zentimoko balioarekin (32.039.347,72 €). Proiektuak aztertu ostean, irisgarritasun-obrak soilik aintzat hartuta, eta 2003ko irailaren 3ko (5014) Aginduan ezarritako baremoen arabera aztertuta, diruz lagun zitekeen gehieneko zenbatekoa honako hau atera zen: hamasei milioi seiehun eta bat mila ehun eta hirurogeita bost euro eta berrogeita bi zentimo (16.601.165,42 €)

2003. urteko diru-laguntzen deialdiak izandako arrakasta ikusita, Udal eta Erakunde Txikien obra guztien finantziazio-premiak ezin izan ziren behar bezala bete; orduan, Irisgarritasun Planen gauzatzeari eman zitzaion lehentasuna, eta irisgarritasun-obren finantziazioa zintzilik geratu zen, behar besteko aurrekontu-partidaren arabera.

Ildo beretik, 2003. urteko deialdian ere zintzilik geratu ziren honako hauek: Udaletako obren finantziazioa hobetzea; Udal eta Erakunde Txiki horien artean, 50.000 biztanletik beherakoei lehenetasuna ematea, txikiago izanik hiru hiriburuek edo 50.000 biztanletik gorako Udalek baino ahalmen ekonomiko txikiagoa dutelako; Udal eta Erakunde Txiki horien atzetik, bigarren tokian, obra txikiak (baina txikiak izateak ez du esan nahi minusbaliatuek gutxiago erabiliko dituztenik) lehenestea, hiri-azpiegitura handien aurrean, izan ere, obra handi horiek finantziazio berezi independentea beharko baitute, diru-laguntza honen filosofiarekin bat ez datorrena.

Hori dela eta, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren helburua honako hau da: irisgarritasun-planak osatzeko diruz lagun daitezkeen jarduerak sustatzea, eta ekipamendua hobetzeko eta erosteko obrak gauzatzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinetan eta hiri-ingurunean irisgarritasuna bermatzeko; baina kasu horretan, interes publikoko eta gizarte-intereseko arrazoiak bat egiten dutenez, 04.0.1.07.12.0100.1.722.01.43124.004.I, 04.0.1.07.12.0100.3.722.01.43124.004.K eta 04.0.1.07.12.0100.2.722.01.43124.004.J partidetan nahikoa kreditu badagoenez, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren —azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartu zena, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak eskatuta— 49.7. artikuluan xedaturikoari jarraiki, eta 2004ko uztailaren 2an izandako Saioan behar bezala hausnartu ostean, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako hau erabaki du: gehieneko zenbatekoa guztira BI MILIOI ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA EURO (2.890.000.- €) izanik, zuzeneko diru-laguntza ematea segidan zerrendaturiko Onuradunei, eta zerrendan bakoitzarentzat adierazitako gehieneko zenbatekoekin.

1.- **Aguraingo Udalari** (01SACC-03-04) diru-laguntza eman zaio, itzuli beharrik gabeko 2.504,51 €-koa, honela banakatua:

- a) 2003ko irailaren 3ko Aginduaren arabera azterturiko diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 22,36 "igerileku estalietako jasogailua" obra egiteko, gehieneko zenbatekoa MILA ETA BERROGEITA HAMASEI EURO ETA HIRUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (1.056,69 Euro) izanik, eta 04.0.1.07.12.0100.1.722.01.43124.004.I aurrekontu-partidaren kargura; gehieneko zenbateko horretatik, EHUN ETA BOST EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (105,67 Euro) 2004. urteari dagozkio, eta BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA EURO ETA BI ZENTIMO (951,02 Euro) 2005. urteari.

b) 2003ko irailaren 3ko Aginduaren arabera azterturiko diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 22,36, hau da, MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA BI ZENTIMO (1.447,82 Euro), "Foruen kalean eta asistentziazko eskolagunean" obra egiteko, aurreko partidaren kargura; zenbateko horretatik EHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (144,78 Euro) 2004. urteari dagozkio, eta MILA HIRUREHUN ETA HIRU EURO ETA LAU ZENTIMO (1.303,04 Euro) 2005. urteari.

2.- **Alegria-Dulantziko Udalari** (02SACC-03-04) itzuli beharrik gabeko diru-laguntza eman zaio; 2003ko irailaren 3ko Aginduaren arabera azterturiko diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 22,36 "San Blas kalean eta Solandia parkean hiri-altzariak jartzeko", gehieneko zenbatekoa MILA HIRUREHUN ETA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA HAMASEI ZENTIMO (1.319,56 Euro) (1.319,56 Euro) izanik, 04.0.1.07.12.0100.1.722.01.43124.004.I aurrekontu-partidaren kargura; zenbateko horretatik EHUN ETA HOGEITA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (131,96 Euro) 2004. urteari dagozkio, eta MILA EHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (1.187,60 Euro) 2005. urteari.

3.- **Amurrioko Udalari** (03SACC-03-04) diru-laguntza eman zaio, itzuli beharrik gabeko 101.834,90 €-koa, honela banakatua:

a) 2003ko irailaren 3ko Aginduaren arabera azterturiko diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 22,36 honako obra hau egiteko: "Irisgarritasun-planaren 2. fasea: Aldai kaleko esku-hartzea; Elexondo kaleko esku-hartzea; Larrinaga kaleko esku-hartzea; udal-parkean esku-hartzea; La Casona liburutegian esku-hartzea; kutxa zaharraren lokaletan esku-hartzea; udako igerilekuetan esku-hartzea", gehieneko zenbatekoa honako hau izanik: BERROGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA BAT ZENTIMO (53.512,81 Euro), 04.0.1.07.12.0100.1.722.01.43124.004.I aurrekontu-partidaren kargura; zenbateko horretatik BOST MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO (5.351,28 Euro) 2004. urteari dagozkio, eta BERROGEITA ZORTZI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (48.161,53 Euro) 2005. urteari.

